

“Pilota taldeak garai berria bizi du”

22 urte besterik ez
ditu eta urtebete
darama Ermuko
pilota taldeko
arduradun gisa.
Mikel Txapartegik
utzitako lekuari
gogotsu heldu zion.

-Nola hartu zenuen pilota taldearen ardura?

Esku pilota betidanik izan dut oso gustoko, partiduak ikustera sarritan joaten nintzen. Mikel Txapategik uzteko asmoa zuela esan zidan eta ardura hori hartzeko, ni oso pertsona aproposa ikusten ninduela. Hasierako hilabeteetan asko lagundu zidan eta konturatu gabe urtebete pasa da.

-Zein gomendio eman zizun Txapartegik?

Aurrera egiteko beldurrik gabe. Gaztea nintzela baina gogotsu ikusten ninduela. Edozein arazoren aurrean beregana jotzeko. Garai berriak bizi ditu gure taldeak.

-Gaztea zara, neska... Nola hartu zaituzte gainontzeko herrietak?

Esualdeko bilerak Berrizen egiten ditugu herri ezberdinetako arduradunok. Hasieran harridura aurpegiarekin begiratzen ninduten. Ni naiz neska bakarra, zoritxarrez oraindik gizonezkoak soilik ikusten dira pilota munduan.

-Bazterketarik sumatu duzu?

Ez, Jende jatorra ere badago eta erraza izan da.



-Zenbat haur dituzue pilota taldean?

40 ume inguru dauzkagu. 16 pilotari federatu mailan eta gainontze-koak, eskola arteko mailan.

-Laster dator Herriarteko
Txapelketa ere...

Parte hartzeko asmoa dugu aurtentzen. Jubenil mailako pilotariak falta ditugu baina osatu dugu bikote hori ere. Udaberriko txapelketan arituko gara, baita Durangaldeko txapelketan eta eskola arteko txapelketan ere.

**-Nolako osasuna dauka esku pilo-
tak?**

Gure inguruan indartsu dago. Markina eta Elorrioko taldeak dira indartsuenetarikoa.

**-Pilotaz gain, beste hainbat gau-
zatan ari zara.**

Goizez, Gizarte Integrazioa ikasten nabil Erandion. Eibarko Urki nesken futbol taldean ere banabil, Ermuko emakumeen kontseiluko partaidea naiz, Arreta Irratian astero irratsaioa egiten dut, asteburuetan kiroldegian eta Torretan egiten dut lana.

-Zuretzako astirik ba al daukazu?

Ez larregi baina arratsaldero koa-
drilakoekin kafetxoaren ordua sa-

kratua bilakatu da. Zapatuetan ahal dudanean lagunekin ateratzen naiz juergan.

-Oporretarako astirik?

Oporretan nagoenean, ez naiz gustora egoten. Ohitua nago zer-bait egitera eta gauzak egiteko premia izaten dut.

-Zertan ikusten duzu zure bu-
rria hemendik urte batzuetara?

Etorkizunak ez nau kezkatzen.
Nahiago dut egunerokoa bizi.

-Hainbat arlotan ari zara. Zure adineko asko ez dabil horrela...

Askok nahiago du festa eta juer-
ga. Niri ere bere neurrian gusta-
tzen zait baina baita beste gauza
batzuk egitea ere... Gazteak gutxi
inplikatzten direla uste dut eta bo-
londres lana egiteko ez dutela go-
gorik.

-Miresten duzun kirolaria?

Santi Ezquerro futbolaria eta
Lance Armstrong txirrindularia.



-Athletic-zale amorratua...

Denboraldi gogorra izaten ari da baina beti aurrera. Ezin da sekula horrelako talde bat mailaz jaitsi.

-Besterik?

Eibarko nesken futbol taldean
neskak behar ditugula.

Asier Ibaibarriaga



Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*